

ELAk Haurreskoletan emandako soldata murrizketen inguruko gatazka kolektiboa irabazi du

Sententziak Partzuergoak inposaturiko soldata murrizketak baztertzen ditu eta soldatak bere osotasunean ordaintzera behartzen

EAEko Epaitegi Gorenaren Lan-arloko aretoak argitara eman berri ditu Itunpeko Irakaskuntzako eta Haurreskoletako langileei inposaturiko soldata murrizketak direla eta ELAk aurkezturiko Gatazka Kolektiboaren sententziak. Bertan, patronal ezberdinek aplikaturiko soldata murrizketak ez direla legezkoak adierazten da eta hitzarmen ezberdinetan jasotzen diren soldatak bere osotasunean ordaintzera behartzen ditu.

ELAk behin eta berriro salatu du Eusko Jaurlaritzak sektore publikoko langile guztiei inposaturiko soldata murrizketa eta modu berezian, 0,8ko soldata igoeraz gain, Haurreskolen Partzuegoak bertako langileoi inposatu dizkigun murrizketak. Hau izan da ELA negoziazio mahaitik altxatzearen arrazoia eta murrizketak atzera bota bitartean inolako sasi-negoiaziorik ez onartzearen funtsa. Espero dezagun oraingoan, gainerako sindikatuek ere bide honetan indar egitea eta 0,8ko soldata igoeraz gain, murrizketak atzera bota eta Partzuergoa sententziak dioena betetzera behartzea.

Sententzia honekin, Haurreskoletako langile guztiak zoriontzeaz gain, ELA irakaskuntzako arlo ezberdinetan eta sektore publiko osoan langileoi inposatu dizkiguten soldata murrizketen salaketan berresten da eta soldatek inongo erantzukizunik ez duten krisi hau langileok ordain ez dezagun borrokatzen jarraitzeko konpromisoari eusten dio.

Lehenbailehen afiliatuekin harremanetan jarriko gara sententziaren azalpen sakonago bat eskaini eta aurrerantzean emango ditugu pausoak azaltzeko.